

NIK MASHUP LEIOA

IDENTITATEA, BAKEA ETA ELKARBIZITZA

BADA EUSKAL IDENTITATE BAKARRA?
EDOTA ASKO ETA ANITZAK DIRA? ZER IRITZI DUTE
HERRITARREK BERE IDENTITATEAZ?
NOLA ERAGITEN DIO IDENTITATEAK PERTSONA
BAKOITZAK EUSKADIKO GATAZKAZ ETA
ELKARBIZITZAZ DUEN IKUSPEGIARI?



Nik Mashup proiektu parte-hartzailea da. Bertan, euskal identitateari eta bere ezaugarri nagusiei buruzko hausnarketa- eta elkarrizketa-prozesuaren bidez, herritarren pertzepzio desberdinak ezagutzen eta aitortzen saiatu nahi da; hain zuzen ere, bere identitateaz eta honek gatazkaren eta elkarbizitzaren ikusmolde desberdinei eragiteko moduz dituzten pertzepzioak.

Nik Mashup proiektuaren helburua zera da: batetik, herritarrek euren identitateaz dituzten iritzi desberdinak plazaratzea eta ezagutzea eta, bestetik, elkarbizitzari laguntzen dioten elkarrizketa-espazioetan identitatea nola eraikitzen den aztertzea.

Proiektuak herritarrak inplikatzeko beren identitateaz eta ikuspegiaz, elkarbizitzari buruzko esperientziak eta itxaropenak hausnartzeko eta eztabaidatzeko, ikus-entzunezko elkarrizketak grabatzeko, eta esperientziak nahiz lekukotzak hainbat euskarri digitalen bidez komunikatzeko eta hedatzeko.



NOLA GAUZATZEN DA?

Nik Mashup metodologia parte-hartzailearen bidez egiten da. Metodologia hau hausnarketa-eta elkarrizketa-prozesuan oinarritzen da eta ikus-entzunezkoetan trebatzeko tailerrekin osatzen da. Tailerrak amaitutakoan, parte-hartzaileak kalera irtengo dira herritarren iritzia eta lekukotzak grabatzera, aurrez adostutako gidoi edo galdera-sorta bat eskuan dutela.

EMAITZA

Leioako herritarrei egindako **elkarrizketa** sail bat eta prozesuaren garapena jasoko duen **laburpen bideo** bat. Parte-hartzaileek sortutako edukiak web plataforma batean (nikmashup.org), jarriko dira. Bertan, proiektuaren garapena azalduko da eta, egindako elkarrizketa eta laburpen bideoa plazaratuta, kontakizun anitza eraikiko da, herritarren identitate eta iritzien ikus-entzunezko mosaikoa. Hau guztia gainerako herritarrek kontsultatu ahal izango dute euren kontakizuna eraikitzeko.


NORI ZUZENDUA DAGO?

Proiektuak jomuga dituen pertsona parte-hartzaileak “natibo digitalak” deiturikoak dira, hau da, hainbat gailu eta aplikazio digital erabiltzetik eskuratutako informazio zabala eta pentsamendu sortzailea duen belaunaldia.

18-30 urte badituzu eta Leioan bizi bazara, anima zaitetz parte hartzera, izen-ematea doan da.

HARREMANA ETA IZEN-EMATEA

(+34) 675.715.661
info@geuz.es



NOIZ IZANGO DA?

Maiatzak 23, ostirala, 16:00etatik 20:00etara eta maiatzak 24, larunbata, 10:30etatik 13:30etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Parte-hartzaileak bazkaltzera gonbidatuta daude larunbatean.

NON?

Mendibile Jauregian (Mendibile auzoa, 42), Leioa.

INFORMAZIO GEHIAGO

Nik Mashup <http://www.nikmashup.org/eu>
Laburpen bideoa <http://vimeo.com/64538304/>

Nik Mashup Leioako Udalaren proiektua da, Ubiqak diseinatua eta garatua, Geuzen, Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate Zentroaren laguntzaz.

